



Hydrosense

BEZEROEKIKO HARREMANA:

Bezero berriak erakartzeko estrategiak:

Lehenengoz webgune informatiboa eta demo birtuala Web-orrian gure sistemaren funtzionamendua, abantailak eta instalazio prozesua modu argian azalduko dira. Bisitariak demo interaktibo bat probatu ahal izango dute, produktua nola erabiltzen den ikusteko. Bigarrenik, Sare sozialetan presentzia Nekazaritzarekin lotutako edukia, aholkuak, eta gure sistemaren funtzionalitateak erakutsiko ditugu. Horrek interesatutako erabiltzaileak erakarriko ditu. Bestalde, anda-azoketan eta nekazaritza jardunaldietan parte hartuko dugu Produktuaren aurkezpen praktikoak egingo ditugu, nekazariei benetako balioa erakusteko.



Bezeroekin izango dugun harremana

-Zerbitzu automatizatuak (web/aplikazioa) Bezeroek ur-mailaren jarraipena eta alertak zuzenean ikusiko dituzte gure aplikazioan. Aplikazioak txosten automatizatuak eta gomendioak sortuko ditu ureztatze eraginkorrerako. Bestalde Laguntza pertsonalizatua Instalazioan, konfigurazioan eta mantentze-lanetan pertsona batek lagunduko du, telefono edo bideodei bidez. Zalantzak argitzeko bezeroen arreta zerbitzu espezializatua izango dugu eta amaitzeko Baterako sorkuntzarekin bezeroen iritziak etengabe jasoko dugu funtzio berriak garatzeko. Horrela, erabiltzaileak proiektuaren parte sentituko dira.

Bezeroak mantentzeko eta hazteko ekintzak:

Harpidetza-sistema bat erabiliko dugu gure negozio-ereduan, bezeroak ur-mailaren monitorizazioa eta aplikazioaren erabilera hilabeteko edo urteko harpidetzaren bidez integratuko dira. Horrek diru-sarrera egonkorrak sortzen ditu eta bezeroa epe luzerako lotzen du.

Beste alde batetik salmenta ondorengo zerbitzuak

Urtean behingo berrikuspen teknikoa, sistema eguneraketak eta instalazioen optimizazioa eskainiko ditugu. Lojalitate-programa batekin azalduko duguna Bezero



zaharrei deskontuak, lehentasunezko laguntza edo hobekuntza berrien sarbide goiztiarra eskainiko diegu.

Bezeroen integrazioa:

Bezeroak gure sisteman harpidetza digitalaren bidez egongo dira integratuta. Horrek kontrol zentralizatua, datuen segurtasuna eta zerbitzu etengabea baieztatuko dizkie. Era berean, bezeroek komunitatean eta baterako sorkuntzan parte hartzea sustatuko dugu, produktuaren garapenean aktiboki inplikatur.